

'Bihar eta Berandu': aintzinako ametsa plastiko zati batean

'Bihar eta berandu' da Julio Kageta musika talde ermutarrak bakarka atera duen bere lehen diskoaren izenburua. Dударik gabe, eurek disko hau 'gaur eta goiz' kaleratu nahi izango zuten hasierako denbora haietan, baina sei urteko lan gogor bat egin behar izan dute ametssetako bat platiko zati baten sartu aurretik.

Diska honek 10 abesti ditu, baina konpaktoak abesti bat gehiago du; hain zuzen ere, 'singlean' azaltzen den 'Baloreetako eskala' izeneko abestia.


Diska **B**ordelen grabatu dute, Goñi anaien Gor diskaetxearekin.

GALDERA.— Diska hau kaleratu baino lehen lan gogorra egin behar izan duzue; historia luzea izan da, ezta?

ERANTZUNA.— Bai, orain sei urte hasi ginen eta orain etorri zaigu bakarka disko bat ateratzeko aukera, lehenago beste talde batzuekin bilduma atera eta gero. Gainera, gu zerotik hasi ginen. Beste kasu batzutan musiko batzuk, trebatutako musiko batzuk, elkartu egiten dira talde bat egiteko. Guk hasieran ia ez genekien jotzen. Ikasi behar izan dugu. Hori gutxi balitz, Euskadin disketxeak ez dira multinazionalak, independenteak dira eta ezin dute gehiegi arriskatu, maila egokia duten taldeak behar dituzte. Itxura denez, guk orain maila hori lortu dugu.

G.— Zuen abestiek nondik norako gaiak jorratzen dituzte?

E.— Kaleko mobidak, eguneroko historiak, zalantzak,...Horiek dira batez ere gure gaiak.




G.— Estiloari dagokionez, ekarri du aldaketaren bat lehen disko honek?

E.— Hasteko, esan behar da diskoko bost abesti, abesti zaharrak direla; orain arte kaleratzerik izan ez ditugunak.

Besteek, abesti berriek, bai, diferentzia nabaria dute lehen egiten genuen musikarekin. Orain gure musika zabalagoa da, besteak beste, guk geure aldetik musika diferenteak entzuten ditugulako eta, beraz, influentzia zabalagoak onartzen ditulako. Gainera, jotzen ikasi dugu, gure lehengo mugak gainditu ditugu neurri batetan.

G.— Disko honek musikarekiko zuen jarrera alda dezake? Musikak garrantzi handiagoa har dezake zuen bizitzetan, profesio bat bihurtu?

E.— Euskeraz abestuz, zaila da musikarekin bakarrik bizitzea. Gure helburua diska bat ateratzea da eta egin dugu. Oraindik, ordea, ez ditugu emaitzak ezagutzen, optimistak garen aren. Taldeko partaide bakoitzak, dena den, bere asuntuak dauzka eta, beraz, diskoak ez digu bizimodua aldaeraziko. Hori bai, 'cacheta' igotzeko aukera emango digu eta horrela egingo dugu gainera!



Orain gure musika zabalagoa da, besteak beste, guk geure aldetik musika diferenteak entzuten ditugulako eta, beraz, eragin zabalakoak onartzen ditugulako».

G.—Euskeraz abesten duzue. Erosoago sentitzen zarete horrela edo konpromezu kontua da?

E.— Konpromezu kontua da, bai. Hasieran ez genuen horrelako planteamendurik egin, euskeraz eta gaztelaraz abesten genuen. Orain lau urte, euskeraren alde egin genezakeela, euskeraz abesten, erabaki genuen. Gure herrian tamalez ez dugu euskara apenas erabiltzen, baina, bai, gure konpromezu hortik doa.

Orain lau urte, euskaraz abesten euskararen alde egin genezakeela pentsatu genuen. Gure herrian tamalez ez dugu euskara apenas erabiltzen, baina bai, gure konpromezua hortik doa».



G.— Beraz, beste artista batzuk egin duten bezala, jendearengan duzen oihartzuna kausa baten alde egiteko erabili daitekeela uste duzue.

E.— Hala de. Ez dugu 'arte arte hutsa-gatik' ideia horrekin bat egin. Lehen esan bezala, euskeraren aldeko konpromezua hartu dugu musikaren bitartez. Gainera, gure letrek zerbait diote, gai sozialek ikutzen dituzte, gizarte honetako hainbat gauza zalantzan jarriaz.


Euskaraz abestuta, zaila da musikarekin bakarrik bizi izatea. Gure helburua diska ateratzea izan da, eta egin dugu. Oraindik ordea, ez ditugu emaitzak ezagutzen, baikorrak garen arren».

G.— Euskal musikagintzan, zer azpimarratuko zenukete?

E.— Gauza interesgarriak egiten dira. M-AK eta 'Negu Gorriak' bezalako taldeek zerbait aportatzen dute, bide berriak urratzen dituzte, mugak hautsi, ... Esate baterako 'Negu gorriak' taldeak sampler-a eta eritmo kaxa erabiltzen ditu.



Gu hutsetik hasi ginen. Beste kasu batzuetan muskoak, trebatutakoak, elkartu egiten dira taldea egiteko. Guk hasieran ia ez genekien jotzen; ikasi egin behar izan dugu».



Gai honen haritik, esan Euskal Herrian agian jendearen kultura musikal eza dela arazoa. Gusto musikalek gutxi eboluzionatu dute. Jendea betiko taldeak ikustera joaten da. Talde interesgarri bat atera arren, diferentea bada, lau katu izaten gara ikusten. Asko aurreratu da, baina oraindik kultura musikal eza nabaria dago.

Elkarriketatzaileak edo kritikoak diska bat azaldu edo talde bat ezagutarazteko ahalegin zintzoenak egin arren, bide errezena eta zuzenena diskoa entzutea da. Gainera, 'Bihar eta berandu' baino 'gaur eta goiz'.